Aberri Eguna 2019 Elgeta : Independentzia eta sozialismoa!!

HERRITAR BATASUNA :: 15/04/2019

[Euskara]

ABERRI EGUNA 2019 ELGETA :

> **INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA!**
>
> Independentzia eta Sozialismoa. Berreuskalduntzea eta Birbatasun Nazionala. Hauexek dira Herritar Batasunaren helburu taktikoak. Nafarroako Euskal Langile Errepublika Sozialista eraiki, Iraultza Sozialistaren bidez. Horregatik eta horretarako, Euskal Iraultzarako Herritar Batasuna gara. Euskal iraultzaile guztion batasuna.

Gure helburu estrategikoa Euskal Herri Langile libre eta burujabea lortzea da, klaserik, estaturik eta patriarkaturik gabea. Guretzat, Independentzia eta Sozialismoa eskuratzea, hau da, Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntza, tresna bat da Euskal Langileriaren erabateko askatasunaren bidean, Euskal Proletalgoaren emantzipazio osoaren xendran. Klase borroka iraultzaileak gidatzen du gure ildo politikoa.

2019ko Aberri Egun honetan ozenki eta argiro adierazi nahi dugu borrokan segitzen dugula helburu taktiko hauen alde, inoiz baino irmoago, euskal burgesia ttipiaren sozialdemokrazia autonomistaren traizioa agerian gelditu ondoren. Oraingo eginkizuna Ezker Abertzale Iraultzailea berreraikitzea da, urratsez urrats Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista Iraultzailea berriz abiatzeko.

Azken 60 urteetako borrokaren ikasgaiak barneratu ditugu. Independentzia burgesen garaiak amaitu dira betikotz. Euskal Langileriak bakarrik segurtatzen ahal du Euskal Nazioaren biziraupena, bainan ez forma burgesetan, baizik eta eduki proletarioetan. Hau da, Iraultza Sozialista eginez lortuko ditu Euskal Herri Langileak Independentzia, Berreuskalduntzea eta Birbatasun Nazionala. Aberri Sozialista bat eraikiko dugu, Euskal Proletalgoak gidatu eta artikulatuko duen Nazio bat.

Horretarako, formakuntza, antolakuntza eta borroka, beste biderik ez dugu. Egunez egun eta urtez urte Euskal Herri eta Langile Kontraboterea eraiki arlo guztietan, klase borrokak alor guztietan areagotuz eta gogortuz, harik eta botere politiko eta ekonomikoa eskuratu arte, harik eta Nafarroako Euskal Langile Errepublika Sozialista lortu arte, zeina oinarrituko baita Internazionalismo Proletarioan.

Bide horretan, dei egiten dizuegu organizatzeko egoki ikusten duzuen antolakundeetan, eta okupazio militarpean egin behar diren hurrengo hauteskunde guztietan abstentzio aktibo eta iraultzailea sustatzeko. Ildo berean indartu behar dugu euskal

gudarientzako **AMNISTIA OSOA**, argi eta garbi jakinda euskal militante iraultzaileen askatasuna gure etsaien aurkako garaipenaren ondorioa izanen dela.

Ez dugu gehiago esan nahi. Orain hitza zuena da. Denon artean eraikiko dugu Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista Iraultzailea. Herritar Batasuna tresna bat da bide horretan, Euskal Iraultza Sozialistaren bidean, eta haratago, klaserik, estaturik eta patriarkaturik gabeko Euskal Herri libre eta burujabearen aldeko borrokan.

[Castellano]

> **ABERRI EGUNA 2019 ELGETA :**
>
> **INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA!**
>
> Independencia y Socialismo. Reeuskaldunización y Reunificación Nacional. Estos son los objetivos tácticos de la Unidad Popular. La construcción de la República Socialista de las trabajadoras vascas de Nabarra, mediante la Revolución Socialista. Por y para ello nacimos como Unidad Popular para la Revolución Vasca. La unidad de todas las revolucionarias vascas.

Y nuestro objetivo estratégico es llegar a ser un Pueblo Trabajador Vasco libre y soberano, sin clases, ni Estado ni patriarcado. Para nosotras, alcanzar la Independencia y el Socialismo, esto es, la construcción del Estado Socialista Vasco, no es más que la herramienta necesaria en el camino a la libertad absoluta de la clase trabajadora vasca, de la emancipación total del proletariado vasco. Es la lucha revolucionaría de clases la que determina nuestra línea política.

En este Aberri Eguna de 2019 queremos manifestar alto y claro que seguimos luchando, con mayor ímpetu si cabe, por estos objetivos tácticos, tras quedar al descubierto la traición de la pequeña burguesía socialdemócrata autonomista.

Así pues, la tarea ahora consiste en reconstruir, paso a paso, la Izquierda Independentista Revolucionaria que active de nuevo el Movimiento Socialista Revolucionario Vasco de Liberación Nacional.

Hemos interiorizado las lecciones de estos últimos 60 años de lucha. Los tiempos de los procesos independentistas burgueses han finalizado para siempre. Hoy es la clase trabajadora vasca la única garante de la supervivencia de la Nación Vasca. Pero no una nación burguesa en sus formas, sino de contenido netamente proletario.

Sólo mediante la Revolución Socialista es como el Pueblo Trabajador Vasco llegará a alcanzar la Independencia, la Reeuskaldunizacion y la Reunificación Nacional. Se trata, en

definitiva, de construir un Estado Socialista, una nación articulada y dirigida por el proletariado vasco.

Para tal propósito, no existe otro camino que el de la formación, la organización y la lucha. Día a día, y año tras año tratando de organizar el contrapoder de la clase trabajadora vasca, potenciando y acentuando la lucha de clases en todos los ámbitos, en aras a conseguir mayores cotas de poder político y económico, imprescindibles para la vertebración de esa futura República Socialista del Pueblo Trabajador Vasco de Nabarra, la cual se regirá por el internacionalismo proletario.

Desde aquí, queremos hacer un llamamiento a que os organicéis allí donde creáis oportuno, y a promover la abstención activa y combativa para los procesos electorales que se celebrarán próximamente bajo ocupación militar de nuestra nación.

En ese sentido, es también necesario fortalecer la reivindicación de la Amnistia Total para las presas y presos políticos vascos, teniendo claro siempre que su libertad sólo vendrá como consecuencia de la victoria sobre nuestro enemigo.

No diremos ya más. A partir de aquí es vuestra la palabra. Nuestro deseo es construir entre todas el Movimiento Socialista Revolucionario Vasco de Liberación Nacional, y la Unidad Popular no pretende ser más que una mera herramienta en esa tarea, En el camino de la Revolución Socialista Vasca, en la lucha por una Euskalerria libre y soberana, sin clases, ni Estado ni patriarcado.

---

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/aberri-eguna-2019-elgeta-independentzia